

---

## Lau emakumek eta hiru gizonek jasoko dituzte Kavli sariak

Hiru arlotako ikerketak aitortzen dituzte Kavli sariak: Astrofisika, Neurozientzia eta Nanozientzia. Guztira, zazpi saritu dira aurrean, eta haietako lau emakumeak dira.

Astrofisikako saria jasoko duena da bat: Ewine van Dishoeck. Astrokimikan egindako ekarpenengatik saritu dute; bereziki, izarrarteko hodeien zikloa eta izar eta planeten sorrera argitzeko egindako lanarengatik. Neurozientziako saria, berriz, bi gizonek eta emakume batek jasoko dute: James Hudspeth, Robert Fettilplacek eta Christine Petitek. Belarriko zelulek soina nola jasotzen duten eta seinale elektriko nola bihurtzen duten azaltzearengatik sarituko dituzte. Azkenik, genoma editatzeko [CRISPR-Cas 9](#) metodoa asmatu dutenek jasoko dute Nanozientziako saria: Emmanuelle Charpentierrek, Jennifer A. Doudnak eta Virginijus Šikšnys.

Fred Kavli filantropoaren izena dute sariak, eta Kavli Fundazioak, Norvegiako Zientzia eta Letren Akademiak eta herrialde bereko Hezkuntza eta Ikerketa Ministerioak ematen dituzte, bi urtez behin, zientziaren aurrerapena bultzatzea helburu. ●




ARG.: Kavli Fundazioa

---

## Eguzki-energia lortzeko zuntz optiko berri bat, merkea eta eraginkorra

Eguzki-kontzentragailu gisa jokatzen duen zuntz optiko berri bat, merkea eta eraginkorra, lortu du Itxaso Parola Domingo EHuko telekomunikazio-ingeniariak.

Ohiko siliziozko zelula fotovoltaikoek hobetu beharreko alderdi asko dituzte: silizio-iturriak mugatuak dira, instalazio-azalera handiak behar dira, eguzkitiko zuzeneko argia behar dute, eta, beraz, eguzkiari jarraitzeko sistemak behar dituzte... Horrek guztiak garestitu egiten du eguzkitiko energia eskuratzeko.



Eguzki-argia kontzentratzeko eta zelula fotovoltaikoetara garraiatzeko errendimendu handiko polimerozko zuntz optiko dopatuak. ARG.: Itxaso Parola Domingo/EHU.

Horri irtenbidea emateko, dopatzaile hibridoko polimerozko zuntz optiko bat garatu dute Parolak eta kideek. Zuntz optiko horrek eguzki-kontzentragailu lumineszente gisa jokatzen du: eguzki-argia xurgatzen du eta uhin-luzera handiago batean emititzen du; argia zuntz optikoaren muturrera garraiatzen du barne-islapen osoaz, eta muturrean, zelula fotovoltaikoa kokatzen da. Lehen aldia da osagai organikoak eta ez-organikoak dituen polimerozko zuntz optikoak erabiltzen direla xede horretarako.

Emaitza oso ona izan da, siliziozko zelula fotovoltaikoek baino errendimendu handiagoa izateaz gain (bereziki egun hodeitsuetan), askoz ere merkeagoa baita. ●